

1.2.1. Lerro estrategikoak definitzea eta ikastetxeko proiektua sustatzea, hezkuntza-komunitateko eragileen beharrak eta itxaropenak eta ikastetxearen ezaugarriak oinarri hartuta.

1.2.2. Urteko plana eta memoria ikastetxeko lerro estrategikoen eta proiektuen arabera egiten direla bermatzea. PD urteko planean jasotzen da.

1.2.3. Curriculumarekin eta antolaketarekin lotura duten alderdietan eta haien arteko erlazioetan ikastetxearen jarduerari buruzko ikuspegi globala ematea.

1. LERRO ESTRATEGIKOAK DEFINITZEA (DOKUMENTAZIOAREN BERRIKUSPENA)

- Lerro estrategikoen eta lehentasuna emandako behar eta itxaropenen arteko koherentzia.
 - ✓ Ikastetxearen heziketa-proiektuan (IHP).
 - ✓ ICP.
 - ✓ Plan Estrategikoa.
 - ✓ Zuzendaritza Proiektua.
 - ✓ Urteko plana eta urteko memoria (arreta berezia emango zaie, bi dokumentu horiek dakarten funtzio operatiboagatik)...

2. ZUZENDARITZAK ESKU HARTZEKO ESPARRUAK ZEHAZTEA, LERRO ESTRATEGIKOAK OINARRI HARTUTA (DOKUMENTUEN BERRIKUSPENA ETA ELKARRIZKETAK)

- Lerro estrategikoen zuzendaritzaren lanean eragitea helburutzat hartuko da, batez ere ikasleen emaitzak hobetzea badakarte.
 - ✓ Gobernu-organoen bilkuren aktak.
 - ✓ Koordinazio didaktikorako organoen bilkuren aktak (koordinazio pedagogikorako batzordea, sailak, zikloak...).
 - ✓ Elkarrizketak zuzendaritza-taldearekin, zikloko koordinatzaileekin eta/edo mintegi-buruekin, zuzendaritzak zer alderditan eragiten duen eta esku-hartze horietan zenbat jarduten duen zehazteko.